

GARAIAK

Gezurra ba dirudi ere, Euskal Herrian “garaia” hitza esaten denean, gehientsuenek ezjakinaren aurpegia jartzen dute. Gero esaten zaienean garaia hitzak ‘horreo’ esan nahi duela, erantzuna izan ohi da: “Baina Euskal Herrian ba al daude, ba, horiek? Eraikin horiek ez al dira Asturias eta Galizia aldekoak?”


Eta harriturik gelditzen dira garai arloan daukagun aberastasuna agertzen zaienean. Gaur egun, gure oroimenetik eta ikuspegitik ia ezabatuta egon arren, hor daude zenbait ale, gure antzinako ohituren eta ondare arkitektonikoaren testigu isil.

1785 Iturrizak dio: Baserri bakoitzak badu bere aurrean, hogeit bat pausora, euskaraz garaia deritzon aletegi bat. Bere lehenbiziko helburua artatxiki eta zekale alea gordetzea zen.

Noiztik daude Euskal Herrian eraikin bitxi hauek? Jakintsuen iritziz, Indoeuropar aurreko edota keltar historiaurretik datorkigu eraikin hauek jasotzeko ohitura. XVII. mendean erabiltzeari utzi zitzaion, eta ordutik, alde batetik behar ezak, eta bestetik arduragabekeriak gehientsuenak desagertu edo hondatu egin ditu.


Eskerrak gaur gure erakundeak gelditzen zaizkigunak poliki-poliki zaharberritzen ari diren.

Juan Mari Arrizabalaga




1.- Santa Fe baratzagaitzekoaren garaia Eparotzen (Nafarroa)

Mota Urraulgoiti, XIII. mendeko eliza nabarmentzen deneko multzoa, gotikorako trantsizioaren estilokoa. Basilikaren esparruaren barruan, klaustroaren ondoan, piriniar motako garai deigarri bat dago, egitura laukizuzena duena. Harrizko hamabi zutoin ditu euskarritzat, harri-hormak ditu, izkinetan silarriak eta atean dobelak. Estalkia bi isurkikoa da. 1980an zaharberritu zuten.




2.- Ertzilleko garaia Iurretan (Bizkaia)

Gómez Tabernerak dioenez, garaia zurez eraikitzeko teknika indoeuropar aurreko korronteeekin batera iritsi zen penintsulara... Iberiar Penintsulako gainerako garaien familia berekoa, euskal *garaixea* lur honetako eraikuntza berezia da, bertako Iurretan garatua, bere xehetasunetan gure orubearen baldintza naturaletara egokitua.




3. - Etxegarai etxearen garaia Orbaizetan (Nafarroa)

Mota Aezkoa, erdialdeko Pirinioak.- Euskal Herrian ondo bereizitako bi gune daude, eta horietan paldoen gainean altxatutako aletegi hauen erakusgarri batzuk ikus daitezke oraindik ere. Gune horiek, batetik, Bizkaiko lurraldearen ekialdea eta Gipuzkoako Deba ibai-arroaren erdialdea dira eta, bestetik, Pirinioen eskualdea eta Pirinio aurrekoa, Aezkoa, Zaraitzu, Urraulgoiti, Artze, Longida aranak hartzen dituen, Orbaibarreko Iratxetako garai erromanikoaz gain.




4. - Buradon gatzagako garai zaharra (Araba)

Eraikin barroko honek aldaketa ugari izan ditu. Izan ere, bere antzinako ezaugarri gehienak galdu ditu. Lursail malkar baten gainean dago altxatuta, harresira itsatsita. Oinplano laukizuzena du, eta fatxada nagusia horma pikoan amaitzen da bere alde txikienean. Eraikin honetan elizaren hamarrenak jasotzen ziren eta ugariak dira Tazmiasen liburuetan “denen garaiari” buruz agertzen diren datuak.




5.- Reca etxearen garaia Hiriberrin (Nafarroa)

Mota Aezkoa. *Gare* edo *garai* ugari dagoen arana. Oinplanoa nahiko laukizuzena izan ohi dute, alde txikienetako batean fatxada, harri-hormak, silarri-kateekin izkinetan; pagozko oholtxo, teila edo arbelezko teilatua, malda handikoa eta bi isurkikoa, labain-eskailera, lehenengo oineraino iristen ez dena karraskariak sar ez daitezen, eta katazuloa behealdean.




6.- Agarre baserriaren garaia Bergaran (Gipuzkoa)

González Duranari deigarri gertatzen zaio Karistia izeneko tribu barrutia Gipuzkoa eta Bizkaia aldekoa izatea hain zuzen ere ezagutzen diren zurezko garai guztiak dauden lekuak... Bardulian eta Autrigoin aireko aletegirik ezagutzen ez den bitartean.




7.- Iratxetako garaia Orbalbarren (Nafarroa)

Edertasun handiko garaia, Nafarroan daudenetatik zaharrena eta ondoen kontserbatuta dagoena, perromanikoaren testigantza. Litekeena da IX. mendean edo X. mendean eraikia izatea. Eraikin honetako oina puntu-erdiko hiru arkuk zabaltzen dute alboetako batean eta bi arkuk bestean. Arku horiek aletegiaren zurezko habeen euskarriak dira. Oinak hiru gezileiho ditu barrualdea aireztatzeko eta bertan argia sartzeko. Bertako zutoinak eta paretak harrizkoak dira, ondo landuak.




8.- Iburguen baserriaren garaia Markinan (Bizkaia)

XVI. mendean eraikitako garai honek lau angeluko kare-harrizko lau zutoin ditu euskarritzat, 2 m.ko altuera dutenak, gorantz estutuz besotzat balio duten harri batzuek koroatuta. Lau zutoinen gainean goitik behera zurez egindako eraikin osoari eusten dioten habe handi batzuk daude ezarrita. Garaira sartzeko zurezko eskalinata batetik igo behar da. Eraikinean egindako irekigune batzuen bidez aireztatzen da barrualdea.




9.- Apat eta Etxeberri etxeen garaiak Arian (Nafarroa)

Mota Aezkoa. Garai hauek gela bakar bat dute barrualdean, korridore batekin, eta alea gordetzeko lautik zortzira “zizkuekin” edo atalekin. “Garepian”, aletegiaren behealdean, simaurtegia edo “ongarritegia”, lanabesak gordetzeko lekua, oilategia eta abar daude. Sarrerako atezangoak elorri zuri eta hurritz abarrez estalita agertzen dira, ferrari eutsita, babeserako elementu gisa San Joan egunean atean iltzatu ohi dena.




10.- Gorotzenea baserriaren garaia Alegian (Gipuzkoa)

Garai modernoa, XIX. mendearen erdialdera Guillermo de Eizaguirre tolosarrak eraikia; aletegi honek ez du erakutsitako gainerako guztiekin batere zerikusirik, ordea. Adreiluzko sei zutoin astunen gainean dago altxatuta. Etxe txiki bat osatzen du, leiho handirekin eta bakoitza sei kristalekin.



11.- Garaiaren osagaiak

Eraikinak hareharrizko edo kareharrizko zortzi zutoin ditu gehienez euskarrizat, oin karratukoak. Zutoin bakoitzak hareharrizko errodezno bat du gainean, errotarren modukoa, arratoiak eta zomorroak igo ez daitezen. 10 mota desberdin ezagutzen dira, "Kapeliak" "Txapelak" edo "errotarriak" izenez. Eta zutoinen gainean lauki bat osatuz lau edo sei habe handi, eraikin osoaren euskarri.



12.- Irunbeine baserriaren garaia Markinan (Bizkaia)

“Garaixearen” jatorrizko eginkizuna zekalearen eta artatxiaren haziak gordetzea zen, baita sagarrak, gaztainak, intxaurrak eta beste fruitu batzuk gordetzea ere. 1650. urtera arte baserri guztien eranskin bat zen, eta 5 eta 20 metro arteko tartean ezartzen zen baserriaren aurrean, eta oso gutxitan alboetan. 1650 eta 1775 urte bitartean galdu zen baserrietako eranskin hauek eraikitzeke ohitura, artoa sartu zenean garaietako aletegiak eta baserriak berak txiki geratu baitziren.